



## **2021EKO GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA BIZIKIDETZARAKO MAHAI POLITIKOAREN ADIERAZPENA**

Gaur, elkarbizitzarako mahai politikotik, Udala osatzen duten alderdi politiko guztien ordezkarezekin, giza eskubideen defentsarekin eta Nazio Batuen Batzarrak 1948ko abenduaren 10ean onartutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala betetzeko konpromisoarekin bat egiten dugula adierazi nahi dugu.

Une hartan, giza eskubideak babestu eta errespetatzeko betebeharrari buruz, Nazioartean adostasunik ez zegoenez, adierazpena ezin izan zen Estatu sinatzaileek nahitaez bete beharreko Itun giza eta gizateriarentzat orientagarria izango zen adierazpen ideal bat izatera mugatu zen. Azkenik, hiru hamarkada geroago, Estatuak, giza eskubideak babesteko zuten betebeharra ezartzeko adostasun nahikoa lortu zuten. Horrela, Giza Eskubideen Nazioarteko Itunak indarrean sartu ziren eta Itun horiek, hautazko protokoloekin batera, Giza Eskubideen Nazioarteko Gutuna osatzen dute gaur egun.

Illo horretatik, elkarbizitzarako mahai politikoa, ia hiru urtez lanean aritu da, Argituz Giza Eskubideen Aldeko elkartearekin eta Baketik Fundazioaren laguntzarekin, aurtengo urriaren 21ean argitaratu zen txosten batean. Txosten honek, Legazpin, 1956tik 2021era bitarte, motibazio politikoak eragindako giza eskubideen urraketak eta indarkeriazko gertaerak jasotzea bilatzen zuen, egia guztiak argitara atera eta sufrimendu guztiak aitortzeko. Indarkeria mota horiek guztiak eta giza eskubideen urraketak arbuiatzetik hasita, biktima guztien aitortza, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermea sustatzeraino.



## **LEGAZPIKO UDALA**

Txosten horrek iragan gordina eta mingarria erakutsi du, baina errealitate horri begiratu behar diogu, eta bizirik dirauten zauriak sendatzeko neurriak hartu behar ditugu, giza eskubideen errespetuan oinarritutako etorkizun baketsu eta demokratikoa eraiki nahi badugu. Horregatik, Legazpiko herritarrak gonbidatzen ditugu iraganari elkarrekin eta modu partekatuan begiratzera, elkartasuna eta elkarrekiko enpatia sustatuz eta pertsona eta bere eskubideak erdigunean jarritz.

Gure uste apalean, Legazpin, motibazio politikoak eragindako giza eskubideen urraketa guztiak aitortzeko lana egin behar dugu eta baita biktima guztiak eta beste sufrimendu batzuk pairatu dituzten pertsonak aitortzeko ere. Gainera, udalerrian bizi garen pertsona orok ekarpenak egin ditzakegu helburu hori lortzeko bidean. Bai udal-ordezkariorik eta baita Udalerriko eragile, kolektibo eta pertsonen ere. Uste dugu beharrezkoa eta ezinbestekoa dela gu guztion parte-hartzea.

Gure aldetik, elkarbizitzarako mahai politikoa osatzen dugunok konpromisoa hartzen dugu ekimen berriak abian jartzeko eta adostasunak eraikitzeko, aurrera eginez eta urratsez urrats, dagoeneko hasi dugun bideari jarraiki Argituzen "Memoria Partekatu Baterantz" txostenarekin.

Amaitzeko, eta informazio gisa, Legazpiko Udalean, doan eta herritarren eskura dago txosten hau interesa duen edonorentzat.

Legazpin, 2021ko abenduaren 9an